



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/06/19

Batzar Nagusietako erakusketa aretoak Bilbao Bizkaia Pride 2018ko lehenengo erakusketea jasoko dau: *Sexu aniztasunaren aldeko euskal artea*

- Erakusketea Arte Pride kultur proposamenaren barruan dago, eta bagilaren 20tik irailaren 2ra egongo da ikusgai
- Jentearentzako inaugurazino ekitaldia bihar arratsaldeko 19:00etan izango da

Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egingo dabe Bilbao Bizkaia Pride 2018aren ospakizunagaz, eta konpromiso horren ondorioz, Bilboko egoitzako erakusketa aretoak erakusketa barriaren inaugurazino ekitaldia jasoko dau bihar, arratsaldeko 19:00etan: *Sexu aniztasunaren aldeko euskal artea* izeneko Arte Prideko erakusketea. Bilbao Bizkaia Pride 2018ko programazino zabalaren barruan antolatutako euskal artisten erakusketa kolektiboak Azucena Vieites, Miriam Ocariz, Eduardo Sourrouille, Elssie Ansareo, Cachorro Lozano, Eduardo Gaviña, Alberto de la Heras, Bubi Canal eta Alba Burgos artisten lanak jasoko ditu; komisarioa Unai Goikolea izango da.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak adierazo dauenez, erakundeak “harrotasunez” jasoten dau ekimena, Bizkaiko Batzarrek, aho batez, joan dan maiatzaren 18an LGTBIfobiaren kontrako Nazinoarteko Eguna dala eta onetsi eben Adierazpen Instituzionalaren bitartez hartu ebazan konpromisoetako batzuk errealidade bilakatzen ditu eta. Agiri haretan adierazoten zan eta Ana Otadui gogoratuarazo gura izan dauen moduan, “LGTBIfobiak errealidade izaten jarraitzen dau”.

“Gogoratuarazo gura dogu, baita be, esparru hetero-normatiboaren barruan ez dagozan sexualidadeak hierarkizetan eta bazterten dituen aurreiritzi sexualak eta trans kolektiboaren patologizazioak indarrean jarraitzen dabela; eta baita gure ikastetxeetako jokabide homofoboek eta emakume lesbianari gizarteko legitimidadea kentzen eta bere eskubideak modu librean aurrera eroatea debekatzen deutson ikusezintasuna be”, salatu dabe batzarretako talde guztiek.

Hori dala eta, erakusketeagaz baliauta, Batzar Nagusietako Presidenteak “LGTBI mobimenduaren ekarpenak” aintzatetsi gura izan ditu, “aniztasun sexuala ikusgai bilakatu

eta legitimatuz”, eta horrez gain, “zuen beharrei eta proposamenei arduraz erantzuteko” konpromisoa berretsi dau, gure “apaltasunaren barruan, baina harrotasun handiz, aniztasunez, kolorez eta pozez betetako ekimen honi” erantzuteko.

ARTE PRIDE: SEXU ANIZTASUNAREN ALDEKO EUSKAL ARTEA

Igaz sortzen hasi zan, eta Bilbao Bizkaia Pride 2018ren IV. edizino honetan formea hartzen hasi dan egitasmoa, hainbat belaunaldi, jatorri eta planteamentu artistikoko euskal artisten erakusketa kolektiboa eginez gauzatuko da. Guztiak be konpromiso argia daukie LGBT mobimenduagaz. Bertatik, ahalik eta diskurtso heterogeneoena eta anitzena sortu gura da.

Sexu aniztasunaren aldeko euskal artea erakusketa, nazino eta nazinoarte mailan aintzatespen handia daukien artista garrantzitsuenetako batzuen artelanez gozetako aukera parebakoa da. LGBT aniztasun sexualaren aldeko euskal erakusketa interesgarria, gai hori modu librean, xumean eta naturalean landuz, artista handien lanez gertuko formatuan gozatzeko aukera bikaina, hain zuzen be.

Transformismoaren munduan Yogurinha Borova ezizenez ezagutzen dan Eduardo Gaviña artistaren eretxiz, artelan guztiek puntu berean egiten dabe bat: Bilbon. Euren artelanean bitartez, zazpi artistek egunero sentitzen dabenaren ikuspegia eskaini gura dabe. “Bakotxak bere moduan eta bere teknikea erabilia, baina emoten diran eta, existiduteagaitik bakarrik, artearen barruan lekua errebindiketan daben egoera asko irudikatuz”, autortu dau Eduardo Gaviñak. Artistak, bere artelanak erakustez gain, ikuskizuna be eskainiko dau Bilbao Bizkaia Pride 2018aren barruan.

Erakusketaren helburua eraldatzeko eta gizartearen kontzientzia pizteko arteak beteten dauen lekua erakustea da. Unai Goikolea DJ eta erakusketaren komisarioaren eretxiz, kulturak “oso leku garrantzitsua” beteten dau, eskubideen defentsan eta errebindikazinoan asko laguntzen dauelako eta, aldi berean, bere bilakaerea eta handitasuna erakusten ditualako, bere aukera handiak nabarmenduz”.

Herritarren eta erakundeen partaidetzea be oso garrantzitsua izan da ekimen hori aurrera eroan ahal izateko: “Ezinezkoa da gizartea eraldatuko dauen ezer egitea danon arteko alkarlanik ez badago”. “Bilbao Pride aktibismotik eta alkarteetatik sortutako ekimen baten bidez hasi zan, eta apurka-apurka herritarren personalidade guztiakaz alkarrizketea egiten saiatzen gara”, gehitu dau.

NOTA DE PRENSA

19/06/18

La sala de exposiciones de las Juntas Generales acoge la principal muestra del Bilbao Bizkaia Pride 2018: *Arte vasco por la diversidad sexual*

- La exposición está enmarcada en la propuesta cultural Arte Pride y estará disponible desde el 20 de junio
- El acto de inauguración al público tendrá lugar mañana a las 19:00

Las Juntas Generales de Bizkaia se unen a la celebración del Bilbao Bizkaia Pride 2018, y como resultado de este compromiso la sala de exposiciones de su sede de Bilbao presentará mañana a las 19:00, mediante un acto público de inauguración, su nueva exposición: la muestra de Arte Pride titulada *Arte vasco por la diversidad sexual*. Una exposición colectiva de artistas vascos organizada dentro de la amplia programación del Bilbao Bizkaia Pride 2018 que reúne una selección de los trabajos de Azucena Vieites, Miriam Ocariz, Eduardo Sourrouille, Elssie Ansareo, Cachorro Lozano, Eduardo Gaviña, Alberto de la Heras, Bubi Canal, Alba Burgos; comisariada por Unai Goikolea.

Una iniciativa que según manifiesta la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia Ana Otadui, la institución acoge “con orgullo” puesto que logra hacer realidad algunos de los compromisos que la Cámara vizcaína adoptó en su conjunto el pasado 18 de mayo a través de una Declaración Institucional con motivo del Día Internacional contra la LGTBIfobia. Tal y como se manifestaba en aquel documento y ha querido recordar Ana Otadui, “la LGTBIfobia sigue siendo una realidad”.

“Queremos recordar, asimismo, la persistencia de un prejuicio sexual que jerarquiza y discrimina las sexualidades que difieren del marco hetero-normativo, la persistencia de la patologización del colectivo trans; los comportamientos homófobos en nuestros centros escolares, la invisibilidad que priva a la mujer lesbiana de legitimidad social y del libre ejercicio de sus derechos”, denunciaban todos los grupos junteros.

Por esta razón, con motivo de esta exposición, la Presidenta de las Juntas Generales ha querido volver a “reconocer los aportes del movimiento LGTBI, visibilizando y legitimando la diversidad sexual” además de ratificar el compromiso “a responder con responsabilidad a vuestras necesidades y propuestas, tal y como intentamos responder modestamente, pero con mucho orgullo, con nuestro apoyo a esta iniciativa llena de diversidad, color y alegría”.

ARTE PRIDE: ARTE VASCO POR LA DIVERSIDAD SEXUAL

El proyecto, que comenzó a gestarse el año pasado y que comienza a tomar forma en esta IV edición del Bilbao Bizkaia Pride 2018, consiste en desarrollar una muestra colectiva de artistas vascos de diferentes generaciones, orígenes y planteamientos artísticos, todos ellos comprometidos con el movimiento LGBT, y que genere un discurso lo más heterogéneo y variado posible.

La exposición *Arte vasco por la diversidad sexual* ofrece una oportunidad única de disfrutar de obras de algunos de los artistas del momento, de gran reconocimiento nacional e internacional. Una interesante muestra vasca a favor de la diversidad sexual LGBT, que intenta ser abordada de forma libre, sencilla y natural, convirtiéndose en una oportunidad única de disfrutar de obras de grandes artistas, en un formato cercano.

Para el artista Eduardo Gaviña, conocido también como Yogurinha Borova en el mundo del transformismo, todas las obras confluyen en un mismo punto: Bilbao. A través de sus obras los nueve artistas procuran ofrecer una visión de los que sienten en su día a día. “Cada uno a su manera y con su técnica, pero plasmando muchas situaciones que se dan y que reivindican, por el siempre hecho de existir, un espacio en el arte”, confiesa Eduardo Gaviña. El artista, además de exponer sus obras ofrecerá un espectáculo durante el Bilbao Bizkaia Pride 2018.

El objetivo de esta muestra es el de demostrar el papel del arte como medio de transformación y despertador de la conciencia de la sociedad. Para Unai Goikolea, DJ y comisario de la exposición la cultura juega “un papel vital” ya que ayuda en la defensa y reivindicación de los derechos, al mismo tiempo que se muestra su evolución, amplitud y evolución, dejando ver las grandes posibilidades que posee.

La participación ciudadana e institucional ha resultado también una pieza importante para que esta iniciativa siga adelante: “No se puede hacer nada que transforme la sociedad sin colaborar entre todos y todas”. “El Bilbao Pride empieza con una iniciativa activista y asociativa y poco a poco estamos intentando dialogar con las diferentes personalidades de la ciudadanía”, añade.